| 2020KO MARTXOAREN 18AN, GETXOKO UDALBATZAK EGINDAKO EZOHIKO ETA PREMIAZKO OSOKO BILKURAREN AKTA. | ACTA DE LA SESIÓN EXTRAORDINARIA Y URGENTE CELEBRADA POR EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO, EL DÍA 18 DE MARZO DE 2020. |
|---|---|
| ============================== | ============================== |
| BERTARATUAK | ASISTENTES |
| LEHENDAKARIA | PRESIDENTA |

Amaia Aguirre Muñoa and.

| ALKATEORDEAK | VICEALCALDESAS Y VICEALCALDE |
|---|---|

Keltse Eiguren Alberdi (EAJ-PNV)
Carmen Diaz Perez (PSE-EE)
Ignacio Uriarte Gorostiaga (EAJ-PNV)

| ZINEGOTZIAK | C O N C E J A L E S |
|---|---|

Alvaro González Pérez (EAJ/PNV)
Iñigo Urkitza Yañez (EAJ/PNV).
Francisco J. Elorza Hormaeche (PP).
Natalia Aranduy Zuazagoitia (PP)
Ibon Rodríguez Larrinaga (EH BILDU)
Itxaso Maseda Saratxo (EH BILDU)
Paula Amieva Clemente (E. PODEMOS)

| IDAZKARI NAGUSIA | SECRETARIO GENERAL |
|---|---|

Ignacio Javier Etxebarria Etxeita jn.

Getxoko Udalaren Udaletxeko Bilkura Aretoan eta Alkate-Lehendakaria Amaia Aguirre Muñoa andrea dela, egun horretako goizeko bederatziak eta erdietan, Udalaren Osoko Bilkura bildu da ezohiko eta premiazko bilkura egiteko. Bilkura horretara lehen adierazitako kideak joan dira.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial de Getxo y bajo la presidencia de la Alcaldesa-Presidenta, Amaia Aguirre Muñoa, se reunió a las nueve horas y treinta minutos de este día el Pleno del Ayuntamiento, para celebrar sesión extraordinaria y urgente, con asistencia de los corporativos expresados al margen.

Alkateak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, bilkurari hasiera eman dio eta jarraian Deialdiko Aztergaien Zerrenda barruan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaitza honakoa izan da:

La Alcaldesa, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

## EBAZPEN ATALA

## PARTE RESOLUTIVA

### 33.- DEIALDIA BERRESTEA.

### 33- RATIFICACIÓN DE LA CONVOCATORIA.

Osoko bilkurak aho batez berretsi du deialdia.

El pleno por unanimidad ratifica la convocatoria.

### 34.- GETXOKO UDALBALTZAK 2020KO OTSAILAREN 27AN EGINDAKO AURREKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA ONESTEA.

### 34- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA ANTERIOR SESIÓN ORDINARIA, CELEBRADA EL DÍA 27 DE FEBRERO DE 2020.

2020ko otsailaren 27an Getxoko Udalbatzak egindako ohiko bilkuraren akta aho batez onesten da.

Por unanimidad se aprueba el acta de la anterior sesión ordinaria celebrada por el Pleno del Ayuntamiento de Getxo el día 27 de febrero 2020.

## ANTOLAKUNTZA ETA KONTUAK

## ORGANIZACIÓN Y CUENTAS

### 35.- 2020RAKO ORDAINSARIEN %2,00EKO ORDAINKETA-GEHIKUNTZA EGITEA.

### 35.- INCREMENTO RETRIBUTIVO DEL 2,00% DE LAS RETRIBUCIONES PARA EL AÑO 2020.

Ignacio Uriartek proposamena aurkeztu du eta adierazi du

Ignacio Uriarte presente la propuesta a la vez que manifiesta que juntamente

sindikatuekin hartutako akordioa betetzearekin batera, zerga-egutegiari buruzko neurriak ere hartuko direla, eta hornitzaileei ahalik eta lasterren ordaintzea bermatuko dela.

con cumplir el acuerdo adoptado con las centrales sindicales también se van a adoptar medidas acerca del calendario tributario, así como se va a garantizar el pago a los proveedores en el menor tiempo posible.

Bozketa egin da eta Antolakuntza eta Langileria zinegotzi arduradunak proposatuta, aho batez ondorengoa erabaki da:

Sometida a votación y a propuesta del concejal responsable de Personal y Organización, por unanimidad se acuerda:

| | |
|---|---|
| <u>Lehenengoa.</u>- Funtzionarioen ordainsariak %2.00 gehitzea, ordainsarien kontzeptuetan 2019ko abenduaren 31n indarrean zeudenekin alderatuz, 2020ko urtarrilaren 1eko efektuarekin.<br><br>Gehikuntza ondoko irizpideen arabera egingo da:<br><br>• Oinarrizko ordainsariak.- Ordainsari horiek funtzionarioari ordaintzen zaizkio bere kidegoa edo eskala atxikita dagoen talde edo azpitaldearen arabera eta horretan duen antzinatasunagatik. Horien barruan soldataren osagarriak eta aparteko ordainsarien hirurtekoak daude. Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko legeek ezartzen dute zenbatekoa.<br><br>• Soldata: Soldataren zenbatekoa sailkapen-taldea edo azpitaldearen arabera ezartzen da eta 2/2020 errege lege-dekretu urtarrilaren 21koa, Sektore publikoaren ordainsariari buruzko premiazko neurriak onesten dituenaren 3.Bost artikuluan xedatuta dago. 2019. urtearekin alderatuz, % 2,00 gehitu da, 2019ko abenduaren 31an indarrean zeudenekin alderatuz, 2020ko urtarrilaren 1eko efektuarekin.<br><br>• Hirurtekoak: zenbateko bera izango da azpitalde guztientzat eta lan egindako hirurteko bakoitzeko ordaintzen da. Oinarrizko soldata bezala, 2/2020 errege lege-dekretu urtarrilaren 21koa, Sektore publikoaren ordainsariari buruzko premiazko neurriak onesten dituenaren 3.Bost artikuluan xedatu da hirurtekoen zenbatekoa eta % 2,00 gehitu da, 2019ko urtarrilaren 31an indarrean zeudenekin alderatuz, 2020ko urtarrilaren 1eko efektuarekin. | <u>Primero</u>.- Incrementar las retribuciones del personal funcionario, en los conceptos retributivos en un 2,00% respecto de las vigentes a 31 de diciembre de 2019, con efectos de 1 de enero de 2020.<br><br>El incremento se realizará de acuerdo con los siguientes criterios:<br><br>• Retribuciones Básicas.- Son las que retribuyen al funcionario según la adscripción de su cuerpo o escala a un determinado Grupo o Subgrupo y por su antigüedad en el mismo. Dentro de ellas están comprendidas los componentes de sueldo y trienios de las pagas extraordinarias. Su cuantía se fija por las leyes de Presupuestos Generales del Estado<br><br>○ Sueldo: Su cuantía viene determinada por el grupo o subgrupo de clasificación y está determinada en el artículo 3. Cinco del Real Decreto-Ley 2/2020, de 21 de enero, por el que se aprueban medidas urgentes en materia de retribuciones en el ámbito del sector público. Respecto de las cuantías del año 2019 han experimentado un incremento de un 2,00% respecto de las vigentes a 31 de diciembre de 2019, con efectos 1 de enero de 2020.<br><br>○ Trienios: consisten en una cantidad, que será igual para cada Subgrupo, por cada tres años de servicio, al igual que el Salario Base, su cuantía se determina en el artículo 3. Cinco del Real Decreto-Ley 2/2019, de 21 de enero, por el que se aprueban medidas urgentes en materia de retribuciones en el ámbito del sector público. Respecto de las cuantías del año 2019 han experimentado un incremento de un 2,00% respecto de las vigentes a 31 |

Arrunteko Ordainsariak/ *Pagas Ordinarias*

| *Taldea / Azpitaldea / 7/2007 Legea Grupo / Subgrupo Ley 7 / 2007* | **Hileko Munta (eurotan)** ***Cuantía Mensual(euros)*** | | **Urteko Guztirakoa (eurotan)** ***Total anual(euros)*** | |
|---|---|---|---|---|
| | **Soldata (eurotan)** ***Sueldo (euros)*** | **Hirurtekoak (eurotan)** ***Trienios (euros )*** | **Soldata (eurotan)** ***Sueldo (euros)*** | **Hirurtekoak (eurotan)** ***Trienios (euros )*** |
| A1 | 1203,56 | 46,32 | 14.442,72 | 555,84 |
| A2 | 1040,69 | 37,78 | 12.488,28 | 453,36 |
| C1 | 781,39 | 28,59 | 9.376,68 | 343,08 |
| C2 | 650,33 | 19,46 | 7.803,96 | 233,52 |
| **(30/1984 Legea) eta talde profesionalak (7/2007 Legea)** E (Ley 30 / 1984) y Agrupaciones Profesionales (Ley 7 / 2007) | 595,22 | 14,65 | 7.142,64 | 175,80 |

| | |
|---|---|
| | de diciembre de 2019. Con efectos a 1 de enero de 2020. |

| **Taldea / Azpitaldea / 7/2007 Legea Grupo / Subgrupo Ley 7 / 2007** | **Aparteko Ordainsariak Pagas Extraordinarias** | |
|---|---|---|
| | **Soldata (eurotan)** ***Sueldo (euros)*** | **Hirurtekoak (eurotan)** ***Trienios (euros )*** |
| A1 | 742,70 | 28,59 |
| A2 | 759,00 | 27,54 |
| C1 | 675,35 | 24,69 |
| C2 | 644,40 | 19,27 |
| **(30/1984 Legea) eta talde profesionalak (7/2007 Legea)** E (Ley 30 / 1984) y Agrupaciones Profesionales (Ley 7 / 2007) | 595,22 | 14,65 |

| | |
|---|---|
| • Ordainsari osagarriak: horiekin lanpostuen ezaugarriak ordaintzen dira, lanbide-karrera edo jarduera, errendimendua edo funtzionarioak lortutako emaitzak. Udalbatzaren Osoko Bilkurak ezarriko du zenbateko orokorra Estatuak adierazitako gehienezko eta gutxieneko mugen barruan (TAOLaren 93.2 artikulua). | • Retribuciones Complementarias: son las que retribuyen las características de los puestos de trabajo, la carrera profesional o el desempeño, rendimiento o resultados alcanzados por el funcionario. Su cuantía global será fijada por el Pleno de la Corporación dentro de los límites máximos y mínimos que se señalen por el Estado (art. 93.2 de la LBRL). |
| • Lanpostu-mailako osagarria: Lanpostuaren mailaren araberakoa da eta osagarriaren zenbatekoa urtero ezarriko da Euskal Autonomi Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 79.1a artikuluak ezartzen duen bezala; aurrekontu horiek % 2,00 gehitu da, 2019ko abenduaren 31an indarrean zeudenekin alderatuz, 2020ko urtarrilaren 1eko efektuarekin, 13/2019 LEGEA, abenduaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2020. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituena,. | ○ Complemento de Destino: Correspondiente al nivel del puesto que se desempeñe, cuya cuantía se fijará anualmente en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi tal y como determina el artículo 79.1a de la ley 6/1989 de 6 de julio de la Función Pública Vasca, y que para este ejercicio 2020 se han visto incrementados en un 2,00% respecto de las vigentes a 31 de diciembre de 2019, con efectos de 1 de enero de 2020 tal y como se recoge en la Ley 13/2019, e 27 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2020. |
| • Osagarri berezia: zailtasun tekniko bereziko baldintzak ordaintzen ditu, baita dedikazioa, erantzukizuna, bateraezintasuna, arriskua edo nekagarritasuna ere. Lanpostuen zerrendan ezartzen da horren zenbatekoa. Irizpide horiek aplikatuz gero zenbatekoak aldatu behar dira; lanpostuen zerrendan jasotako zenbatekoak eta lanpostu-mailako osagarria. Beraz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 22. artikuluan xedatutakoaren arabera, Osoko Bilkurari dagokio onespena egitea eta % 2,00eko gehikuntza egitea, ordainsarien kontzeptuetan 2019ko abenduaren 31n indarrean zeudenekin alderatuz, 2020ko urtarrilaren 1eko efektuarekin. | ○ Complemento específico: retribuye las condiciones de especial dificultad técnica, dedicación, responsabilidad, incompatibilidad, peligrosidad o penosidad y su cuantía viene fijada en la Relación de Puestos de Trabajo. La aplicación de estos criterios supone un cambio en las cuantías que tiene reflejo en la RPT, y también en el complemento de destino, por lo que de conformidad con lo dispuesto en el artículo 22 de la Ley Reguladora de las Bases del Régimen Local corresponde al Pleno su aprobación e incremento en 2,00% respecto de las vigentes a 31 de diciembre de 2019, con efectos de 1 de enero de 2020. |

| TRAMO | PAGAS ORDINARIAS (12) | PAGAS EXTRAS (2) | TOTAL ANUAL |
|---|---|---|---|
| T1 | 5129,30 | 854,88 | 5.984,19 |
| T2 | 6269,14 | 1044,86 | 7.314,00 |
| T3 | 7408,99 | 1234,83 | 8.643,83 |
| T4 | 8548,83 | 1424,81 | 9.973,64 |
| T5 | 9688,67 | 1614,78 | 11.303,46 |
| T6 | 10828,51 | 1804,76 | 12.633,27 |
| T7 | 11968,36 | 1994,73 | 13.963,10 |
| T8 | 13108,20 | 2184,70 | 15.292,90 |
| T9 | 14248,05 | 2374,67 | 16.622,73 |
| T10 | 15387,89 | 2564,65 | 17.952,54 |
| T11 | 16527,74 | 2754,62 | 19.282,37 |
| T12 | 17667,58 | 2944,60 | 20.612,18 |
| T13 | 18807,43 | 3134,57 | 21.942,01 |
| T14 | 19947,27 | 3324,55 | 23.271,82 |
| T15 | 21087,12 | 3514,52 | 24.601,65 |
| T16 | 22226,96 | 3704,50 | 25.931,46 |
| T17 | 23366,81 | 3894,47 | 27.261,29 |
| T18 | 24506,65 | 4084,44 | 28.591,09 |
| T19 | 25646,50 | 4274,41 | 29.920,91 |
| T20 | 26786,34 | 4464,39 | 31.250,73 |
| T21 | 27926,18 | 4654,36 | 32.580,54 |
| T22 | 29066,02 | 4844,34 | 33.910,36 |
| T23 | 30205,87 | 5034,31 | 35.240,18 |
| T24 | 31345,71 | 5224,29 | 36.570,00 |
| T25 | 32485,56 | 5414,26 | 37.899,82 |
| T26 | 33625,40 | 5604,24 | 39.229,64 |
| T27 | 34765,25 | 5794,21 | 40.559,46 |
| T28 | 35905,09 | 5984,19 | 41.889,28 |
| T29 | 37044,94 | 6174,15 | 43.219,09 |
| T30 | 38184,78 | 6364,13 | 44.548,91 |
| T31 | 39324,63 | 6554,10 | 45.878,73 |
| T32 | 40464,47 | 6744,08 | 47.208,55 |
| T33 | 41604,32 | 6934,05 | 48.538,37 |
| T34 | 42744,16 | 7124,03 | 49.868,19 |
| T35 | 43884,00 | 7314,00 | 51.198,00 |
| T36 | 45023,84 | 7503,98 | 52.527,82 |

- Antzinatasunezko osagarri pertsonala: Getxoko Udaleko langile batzuek horiek jaso izan dituzte, 2008ko urriaren 31n osoko bilkurak hartutako erabakiaren bidez onartutako Ordainsarien Egokitzearen ondorioz. Erabaki horrek aurretik jasotzen ziren ordainsarien kontzeptuak UDALHITZ erabakian jasotako xedapenetara egokitu zituen. Osagarri horiek eguneratu ahal dira; beraz, indarreko zenbatekoei % 2,00eko ordainsarien kontzeptuetan 2019ko abenduaren 31n indarrean zeudenekin alderatuz, 2020ko urtarrilaren 1eko

Complemento Personal de Antigüedad: El personal al servicio del Ayuntamiento de Getxo viene percibiendo escomo consecuencia de la Adecuación Retributiva aprobada mediante acuerdo plenario de fecha 31 de octubre de 2008 un complemento por cada uno de los trienios que percibe. Estos complementos son actualizables por lo que corresponden aplicarles un incremento de un 2,00% respecto de las vigentes a 31 de diciembre de 2019, con efectos de 1 de enero de 2020, Las cuantías vigentes para cada uno de los subgrupos con el incremento operado serán las siguientes.

| | |
|---|---|
| efektuarekin. Gehikuntzak eginda, hauek izango dira antzinatasunezko osagarri pertsonalaren indarreko zenbatekoak azpitalde bakoitzarentzat: | |

| **Taldea / Azpitaldea EBEP** ***Grupo / Subgrupo Ley 7/2007*** | **CP Hirurtekoak** ***Trienios CP*** |
|---|---|
| A1 | 33,20 € |
| A2 | 32,24 € |
| C1 | 27,72 € |
| C2 | 28,20 € |
| **Talde profesionalak** Agrupaciones profesionales | 28,73 € |

Bigarrena.- Langileen ordainsariak %2.00 gehitzea 2019ko abenduaren 31an indarrean zeudenekin alderatuz, 2020ko urtarrilaren 1eko efektuarekin funtzionarioen kontzeptu berberetan.

Segundo.- Incrementar las retribuciones del personal laboral en conceptos análogos a los del personal funcionario en un 2,00% respecto de las vigentes a 31 de diciembre de 2019, con efectos de 1 de enero de 2020.

Hirugarrena.- Behin-behineko langileen ordainsariak %2.00 gehitzea 2019ko abenduaren 31an indarrean zeudenekin alderatuz, 2020ko urtarrilaren 1eko efektuarekin.

Tercero.- Incrementar las retribuciones del personal eventual en un 2,00% respecto de las vigentes a 31 de diciembre de 2019, con efectos de 1 de enero de 2020.

| **KATEGORIA/CATEGORIA** | **Urteko Guztirakoa (eurotan) Total anual(euros)** |
|---|---|
| UDAL TALDE POLITIKOEN ADMINISTRARIA (%50) | 15.105,53€ |
| UDAL TALDE POLITIKOEN AHOLKULARIA (%50) | 29.148,48€ |
| UDAL TALDE POLITIKOEN ADMINISTRARIA | 30.211,20€ |
| ALKATETZAKO ADMINISTRARIA | 32.534,27€ |
| UDAL TALDE POLITIKOEN AHOLKULARIA | 58.296,81€ |
| ALKATEAREN AHOLKULARIA | 58.296,81€ |

Laugarrena.- Lanpostuen Zerrendaren aldaketa onartzea, aipatutako erabakiak aplikatu ahal izateko.

Cuarto.- Aprobar la modificación de la RPT en orden a la aplicación de dichos acuerdos.

Bosgarrena.- Alkateari ahalmena ematea erabakiak betearazteko.

Quinto.- Facultar a Alcaldía para la ejecución de los acuerdos.

Seigarrena.- Erabaki hau BAOn argitaratzea, baita aurreko bigarren puntuan ezarritakoaren arabera aldatuko den Lanpostuen Zerrenda ere.

Sexto.- Publicar el presente acuerdo, juntamente con la RPT modificada por el contenido del punto segundo anterior, en el BOB.

**36.- "RKE KAFETEGIA" IZENEKO UDAL ERAIKINA USTIATZEKO ZERBITZUA EMAKIDAREN KONTRATUA ADJUDIKATZEKO PROZEDURA IREKIA HUTSIK GERATU DELA ADIERAZTEA.**

**36.- DECLARAR DESIERTO EL PROCEDIMIENTO ABIERTO PARA LA ADJUDICACIÓN DEL SERVICIO DE EXPLOTACIÓN DEL EDIFICIO MUNICIPAL DENOMINADO "RKE KAFETEGIA".**

Alvaro Gonzalezek aurkeztu du proposamena, eta azaldu du zergatik ez zen bete prozedura, eta lizitatzaile bakarrak akats onartezinak egin zituela.

Alvaro González presenta la propuesta explicando las razones por las que quedó desierto el procedimiento y que se debieron a errores inasumibles cometidos por el único licitador.

Proposamena bozkatu da eta hauxe izan da emaitza: Aldeko 9 boto, EAJ, PP, PSE-EE eta Elkarrekin Podemos; 2 abstentzio, EH Bildu.

Sometida la propuesta a votación obtiene el siguiente resultado: 9 votos a favor, PNV, PP, PSE-EE, Elkarrekin Podemos; 2 abstenciones, EH Bildu.

Ondare zinegotzi arduradunak proposatuta, gehiengoz ondorengoa erabaki da:

A propuesta del concejal responsable de Patrimonio, por mayoría se acuerda:

EGITATEZKO AURREKARIAK
LEHENENGOA.- Getxoko Udaleko Osoko Bilkurak, 2019ko urriaren 31n egindako ohiko bilkuran, 2019-10-31ko 31. erabakia hartu zuen; horren bidez, baimena eman zuen prozedura irekiaren bidez "RKE KAFETEGIA" IZENEKO UDAL-ERAIKINA USTIATZEKO ZERBITZUAREN EMAKIDA adjudikatzeko arauzko izapideak hasteko. Adjudikaziodunak ordaindu behar duen urteroko kanona bere proposamen ekonomikoan ageri dena izango da, kontuan izanik ez direla onargarriak izango gutxienez 5.100 euro betetzen ez dituzten proposamenak (zenbatekoa ez dago BEZaren mende). Gutxieneko hileroko kanona 425 eurokoa izango da hilean (zenbatekoa ez dago BEZaren mende).

ANTECEDENTES DE HECHO
PRIMERO.- Por el Pleno del Ayuntamiento de Getxo, en sesión ordinaria celebrada el 31 de octubre de 2019, se adoptó el acuerdo nº 161, de fecha 31/X/2019, cuyo autorizando el inicio de la tramitación reglamentaria para la adjudicación, mediante Procedimiento Abierto, del contrato de CONCESIÓN DE SERVICIO DE EXPLOTACIÓN DEL EDIFICIO MUNICIPAL DENOMINADO "RKE KAFETEGIA". El canon anual a abonar por el adjudicatario será el recogido en su proposición económica, teniendo en cuenta que no serán admisibles las proposiciones que no cubran como mínimo la cantidad de 5.100 euros (no sujeto a I.V.A.). El canon mensual mínimo será de 425 euros/mes (no sujeto a I.V.A.).

Kontratu honen iraupena 4 (LAU)

La duración del presente contrato será

URTEKOA izango da administrazio-kontratua sinatzen den unetik aurrera zenbatuta. Adjudikaziodunak eskatzen badu eta udalak egokitzat jotzen badu, kontratua behin luzatu ahal izango da 4 (LAU) urtez. Adjudikaziodunak kontratua amaitu baino gutxienez 6 (sei) hilabete lehenago eskatu beharko du luzapena, eta udalak kontratua amaitu baino 2 (bi) hilabete lehenago onartu beharko du.

de 4 (CUATRO) AÑOS desde la fecha de formalización del contrato administrativo. En caso de que el adjudicatario lo solicite y siempre que el Ayuntamiento lo considere oportuno podrá prorrogarse el contrato por una única prórroga de 4 (CUATRO) años. El adjudicatario deberá solicitar la prórroga del contrato con una antelación mínima de 6 (seis) meses antes de la finalización del contrato y el Ayuntamiento acordar la misma 2 (dos) meses antes de terminar el contrato.

Kontratuaren iraupena eta luzapen posiblea espedientean jaso den txosten ekonomiko administratiboa kontuan hartuta kalkulatu dira.

La duración del contrato y su posible prórroga se ha calculado teniendo en cuenta el informe económico-administrativo que consta en el expediente.

Epea beteta, Getxoko Udalarentzat doan izango dira emandako ondasunaren jabari osoa eta egindako obrak, eraikuntzak eta instalazioak.

Una vez cumplido el plazo revertirán gratuitamente al Ayuntamiento de Getxo el pleno dominio del bien concedido así como las obras, construcciones e instalaciones realizadas.

Kontraturako kalkulatu den balioa, lau urtez luzatzeko aukera barne, 4.388.641,38 eurokoa da.

El valor estimado del contrato asciende a 4.388.641,38 euros, teniendo en cuenta una posible prórroga de cuatro años.

BIGARRENA.- Dagokion lizitazio-iragarkia udalaren kontratatzailearen profilean argitaratu zen, bai eta Eusko Jaurlaritzaren kontratazio plataforman ere, 2019-11-06an.

SEGUNDO.- El preceptivo anuncio de licitación es publicado en el Perfil del Contratante del Ayuntamiento, así como en la Plataforma de Contratación del Gobierno Vasco, con fecha 06/11/2019.

HIRUGARRENA.- Osoko Bilkuraren kontratazio-mahai laguntzaileak, 2019-12-18an, HONDARTZU 98 SL enpresak (IFK: B-48956791) aurkeztutako proposamen bakarraren dokumentazio orokorra jasotzen zuen gutun-azala ireki zuen jendaurrean.

TERCERO.- Con fecha 18/12/2019, por la Mesa de Contratación Asistente del Pleno se procedió, en acto público, a la apertura del sobre que contenía la Documentación General de la única proposición presentada, a saber, la de "HONDARTZU 98, S.L." con CIF: B-48956791.

Aurkeztutako eskaintza bakarraren dokumentazioan antzemandako akatsak eta omisioak ikusita, 3 egun

A la vista de los defectos y omisiones detectados en la documentación de la única oferta presentada se le dio a la

balioduneko epea eman zitzaion enpresa lizitatzaileari, aurkeztutako dokumentazioa zuzentzeko edo osatzeko; halaxe egin zuten horretarako emandako epearen barruan.

LAUGARRENA.- Osoko Bilkuraren kontratazio-mahai laguntzaileak, 2020-01-21ean, aurkeztutako eskaintza bakarraren AUTOMATIKOKI EBALUATU DAITEZKEEN IRIZPIDEEI dagokien gutun-azala ireki zuen. Honako hau izan zen emaitza:

HONDARTZU 98 SL enpresaren proposamen ekonomikoari dagokionez, hauxe adierazi zen:

"4.- Aipatutako zerbitzuaren emakida dokumentu guztietan ezarritakoa betez emango duela, batik bat baldintza teknikoen eta administratiboen pleguetan ezarritakoa, honako prezio honetan: HILEROKO KANONA 7.358 EUROTAN (zenbatekoa ez dago BEZaren mende)"

Automatikoki ebaluatu daitezkeen irizpideei dagokienez, berriz, RKE KAFETEGIA lokala ustiatzeko marka-irudi bat hartzeko KONPROMISOA HARTU ZUEN.

Iruarrizaga jauna, HONDARTZU 98 SL enpresaren izenean eta hura ordezkatuz, ekitaldian izan zen, eta adierazi zuen aurkeztutako zenbatekoa urteroko kanonari zegokiola, eta ez hilerokoari. Ezin dute beren gain hartu 7.358 euroko hileroko kanona eta, hortaz, kasu horretan prozeduran atzera egin beharko lukete.

Lizitatzaileak aurkeztutako eskaintza ikusita, kontratazio-mahaiko kideek proposatu zuten "RKE KAFETEGIA" IZENEKO UDAL-ERAIKINA USTIATZEKO ZERBITZUAREN EMAKIDA HONDARTZU 98 SL sozietateari (IFK: B-48956791)

empresa licitadora un plazo de 3 días hábiles para que subsanase o corrigiese la documentación presentada, cosa que hizo dentro del plazo conferido al efecto.

CUARTO.- Por la Mesa de Contratación Asistente del Pleno de fecha 21/01/2020 se procedió a la apertura del sobre que contenía los CRITERIOS EVALUABLES DE FORMA AUTOMÁTICA de la única oferta presentada con el siguiente resultado:

En lo referente a la proposición económica de "HONDARTZU 98, S.L." se indicaba que:

"4.- Que se compromete a llevar a cabo la ejecución de la concesión de servicio citada con estricta sujeción a todos los documentos y en especial, a los Pliegos de Condiciones Técnicas y Cláusulas Administrativas Particulares ofertando el siguiente CANON MENSUAL DE 7.358 EUROS (no sujeto a I.V.A.)."

Y, en lo concerniente a los criterios evaluables de forma automática SI se comprometía a la adopción de una imagen de marca de explotación del local "RKE KAFETEGIA".

Por el Sr. Iruarrizaga, en nombre y representación de "HONDARTZU 98, S.L.", presente en el acto, se indicó que la cantidad presentada se correspondía con canon anual no mensual, no pudiendo asumir un canon mensual de 7.358 €, lo que implicaría que tuviesen que desistir del procedimiento.

Vista la oferta presentada por el licitador los miembros que integraban la Mesa de Contratación, propusieron adjudicar la CONCESION DE SERVICIO DE EXPLOTACION DEL EDIFICIO MUNICIPAL DENOMINADO "RKE KAFETEGIA" a

adjudikatzea, eta atzera egitearen zain geratzea.

Nolanahi ere, adjudikazio-proposamen hori onartu ahal izateko, lizitatzaileak gaitasun- eta kaudimen-baldintzak eta legez eskatutako gainerako betebeharrak betetzen dituela egiaztatzeko agiriak aurkeztu behar zituen.

Aipatutako adjudikazioa automatikoki ebaluatu daitezkeen irizpideen balorazioan lortutako baturaren arabera egin zen: 100 puntu, hots, hileroko kanonari dagozkion 95 puntu gehi RKE KAFETEGIA lokala ustiatzeko marka-irudi bat hartzeko konpromisoari dagozkion 5 puntu.

BOSGARRENA.- 2020ko urtarrilaren 22an, Getxoko Udaleko erregistro orokorrean idazki bat sartu zen (sarrera-erregistroko zenbakia: 2.442), zeina Francisco Iruarrizaga Toledano jaunak (NAN: 16.050.409-C) aurkeztu baitzuen HONDARTZU 98 SL enpresaren izenean eta hura ordezkatuz. Horren bidez, eskaintza ekonomikoan jasotako kanona aldatzeko eskatu zuen, akats bat egin baitzuen hileroko kanonaren ordez urteroko kanona adieraztean.

SEIGARRENA.- 2020-02-13an, Kontratazio Saileko Administrazio Orokorreko teknikariak aurreko eskaerari buruzko txostena egin zuen.

ZAZPIGARRENA.- 2020-02-18an, Osoko Bilkuraren kontratazio-mahai laguntzaileak aztertu eta aho batez onartu zituen Kontratazio Saileko Administrazio Orokorreko teknikariak 2020-02-13an egindako txostenaren ondorioak, zeina HONDARTZU 98 SL enpresak aurkeztutako eskaintza ekonomikoan kanona aldatzeko

la razón social “HONDARTZU 98, S.L.”, con CIF B-48956791, a expensas del desistimiento.

Dicha propuesta de adjudicación quedaba supeditada igualmente a que el licitador aportase la documentación acreditativa del cumplimiento de los requisitos de capacidad, solvencia y demás obligaciones legalmente exigidas.

La citada adjudicación se realizaba de acuerdo con la suma obtenida de la valoración de los criterios evaluables de forma automática: 100 puntos, es decir, 95 puntos del canon mensual más 5 puntos del compromiso de imagen de marca de explotación del local “RKE KAFETEGIA”.

QUINTO.- El día 22 de enero de 2020 tuvo entrada en el Registro General del Ayuntamiento de Getxo, con número de registro de entrada 2.442, escrito presentado por D. Francisco Iruarrizaga Toledano, con D.N.I. nº 16.050.409-C, en nombre y representación de “HONDARTZU 98, S.L.”, solicitando el cambio del canon dentro de la oferta económica al haber incurrido en un error al haber indicado el canon anual en vez del mensual.

SEXTO.- Por el Técnico de Administración General del Departamento de Contratación se emitió, con fecha 13/02/2020, informe sobre la anterior solicitud.

SÉPTIMO.- Por los miembros que integraban la Mesa de Contratación Asistente del Pleno, de fecha 18/02/2020, fue analizado y asumido por unanimidad las conclusiones del informe emitido por el Técnico de Administración General del Departamento de Contratación, de fecha 13/02/2020, sobre la solicitud de

eskaerari buruz baitzen. Hauexek izan ziren ondorioak:

ONDORIOAK

LEHENENGOA: Kontuan hartu behar da aurkeztutako eskaintza baliozkoa dela eta kanona aldatzeko egindako eskaera ezetsiko da, aldaketa hori administrazio-kontratazioa eraentzen duten printzipio guztien aurkakoa baita; izan ere, eskaintza ekonomikoa aldaezina izateko printzipioa urratuko luke, baita tratu-berdintasunaren printzipioa eta gardentasunaren printzipioa ere.

Kasu honetan, lizitatzaileak ez badu aurkeztutako eskaintza mantendu nahi, hura kendu beharko du, bai eskaintza kentzen duela adierazten duen idazki bat aurkeztuz, bai dokumentazioari eta bermeari dagokienez egindako errekerimendua epe barruan ez betez. Kasu horretan, lizitatzailea Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 71.2.a) artikuluan ezarritako kontratatzeko debekuan erori daiteke.

BIGARRENA: Kontuan hartzea lizitatzaileak aitortu duela bere eskaintza ekonomikoak akatsen edo funsgabetasunen bat duela eta horren ondorioz bideraezina dela. Kasu horretan, baldin eta gutun-azala jendaurrean irekitzeko ekitaldian lizitatzaileak aitortu badu akats bat dagoela zenbatekoan eta horren ondorioz haren proposamenaren edukia bideraezina bada, kontratazio-mahaiak eskaintza ekonomikoa baztertu beharko du, arrazoiak emanez; alabaina, eskaintzan jasotako prezioaren zenbatekoarekin onartu beharko du, baldin eta adierazitako akatsaren ondorioz proposamena bideraezina ez bada. Baldintza hori, bideraezintasuna zehaztu gabeko kontzeptu juridikoa den aldetik,

cambio del canon dentro de la oferta económica de la razón social "HONDARTZU 98, S.L.", y que a continuación se recogen:
CONCLUSIONES

PRIMERA: Considerar que la oferta presentada es válida y desestimar la petición de cambio de canon por ser contrario a todos los principios que rigen la contratación administrativa, suponiendo una vulneración del principio de inalterabilidad de la oferta económica y de los principios de igualdad de trato y de transparencia.

En este caso, de no querer mantener el licitador la oferta presentada habrá de retirarla, o bien presentado un escrito indicando que retira la oferta, o bien no atendiendo dentro del plazo conferido al efecto el requerimiento de documentación y garantía. En este supuesto el licitador podría incurrir en causa de prohibición de contratar establecida en el artículo 71.2.a) de la Ley de Contratos del Sector Público.

SEGUNDA: Considerar que se ha producido un reconocimiento por parte del licitador de que su oferta económica adolece de un error o inconsistencia que la hace inviable. En este supuesto la Mesa de Contratación deberá desechar motivadamente la oferta económica si el error en su importe reconocido por el propio licitador en el acto público de apertura hacen inviable el contenido de su propuesta, debiendo aceptarla con el importe del precio en ella consignado en el supuesto de que dicho error no comporte inviabilidad, requisito de inviabilidad que, como concepto jurídico indeterminado, deberá ser apreciado libremente por la Mesa de Contratación a la vista de las circunstancias que concurren en el presente caso.

kontratazio-mahaiak baloratu beharko du, hizpide dugun kasuaren inguruabarrak aintzat hartuta.

Egindako txostena ikusita, bertaratutako lizitatzaileei aretoan sartzeko eskatu zitzaien.

A la vista del informe emitido se solicitó a los licitadores presentes que entrasen en la sala.

Dionisio Iruarrizaga jauna eta Jorge Uriarte jauna zeuden bertan, biak ala biak HONDARTZU 98 SLren izenean eta hura ordezkatuz.

Estaban presentes D. Dionisio Iruarrizaga y D. Jorge Uriarte, ambos en nombre y representación de "HONDARTZU 98, S.L."

Kontratazio-mahaiko presidenteak lizitatzaileari jakinarazi zion erabaki zelaaurkeztutako eskaintza baliozkotzat jotzea eta kanona aldatzeari buruz aurkeztutako eskaera ezestea. Ondoren, bertaratutako lizitatzaileei eman zitzaien hitza, aurkeztutako eskaintzaren bideragarritasuna baloratu zezaten.

Por el Presidente de la Mesa de Contratación se informó al licitador de la decisión de entender válida la oferta presentada desestimar la petición de cambio de canon. A continuación se dio la palabra a los licitadores presentes para que manifestasen la viabilidad de la oferta presentada.

Lizitatzaileek adierazi zuten aurkeztutako eskaintza okerra zela, adierazitako zenbatekoa urteroko kanonari zegokiolako eta ez hilerokoari; horrenbestez, kanon hori hilerokotzat joz gero bideraezina izango litzateke negozioaren ustiapena egiteko.

Los licitadores indicaron que la oferta presentada era errónea, puesto que el importe indicado se refería al canon anual, no al mensual, por lo que entender que el canon fuese mensual haría inviable la explotación del negocio.

Adierazitakoa kontuan hartuta, kontratazio-mahaiak aho batez erabaki zuen aurkeztutako eskaintza bideraezina zela eta, beraz, onartezina. Horrenbestez, bidezkoa da lizitazio-prozedura HUTSIK GERATU DELA ADIERAZTEA.

A la vista de la manifestación realizada la Mesa de Contratación decidió por unanimidad que la oferta presentada era inviable y por lo tanto no admisible. En consecuencia, procede la DECLARACIÓN DE DESIERTO del procedimiento de licitación.

Aurreko egitatezko aurrekariei honako zuzenbideko oinarriak aplikatu behar zaizkie:

